



2025SECG0003
3.bilera: OHIKOA 2025/05/29

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA

BILERA ZK.: 03/2025
EGUNA: 2025/05/29
HASIERA ORDUA: 17:00
AMAIERA ORDUA: 17:45
TOKIA: Bilera gela, 2. solairua.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

Asier Urain Buenetxea, lehen alkateordea.

Jon Riaño Ojanguren, bigarren alkateordea.

Monica de Prado Paniagua, hirugarren alkateordea.

Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba

Bertaratzea desenkusatzan du:

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea, hala badagokio.

Aurkeztu zen 2025eko otsailaren 27an eginiko bileraren akta, Tokiko Gobernu Batzarrak, onar zezan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartu zuen 2025eko otsailaren 27an eginiko bileraren akta.

2.- Maiatzeko Udalbatzarraren bileran jorratuko diren gaien azterketa.

Alkateak azaldu zituen Osoko Bilkuraren gai zerrendako gaien buruzko informazio orokorra emanez.

1. *Aurreko bilkurari dagokion aktaren zirriborroa onartzea, hala badagokio.*

2. *Alkatetza dekretuen kontrola.*

Alkateak azaldu zuen apirilean Osoko Bilkuraren bilerarik egon ez zenez dekretuen zerrenda luzea zela, gehienak obra txikiei eta trafiko isunei buruzkoak zirela, eta garrantzitsuenak azpimarratu zituen, hala nola:

- 173/2025 Dekretua, «Debako hondartzetan (Santiago eta Lapari) zaintza, salbamendua, laguntza eta desgaitasuna duten pertsonentzako bainu lagunduen zerbitzuaren kontratazio espedientea.» Lizitazioa martxan jarri zela, 253.874,43 euroko aurrekontuarekin.
- 182/2025 Dekretua, «Urtebetez luzatzea udaleku irekien zerbitzuaren kontratua (2025ko udaleku irekietarako)» Zuhatza Euskara Elkarrekin eginiko kontratua 2025eko udaleku irekietarako luzatu zela.

- 190/2025 Dekretua, «Tokiko energi komunitate baten bidez Lurazo ikastetxeko estalkian plaka fotovoltaikoak eskatzeko dirulaguntza eskaera.» Proiektua, gehienez, 98.200,36 euroko (BEZik gabe) izango zuela, eta dirulaguntza jasoz gero, tokiko energia komunitate bat eratu beharko zela.
- 204/2025 Dekretua, «Bizikidetza Lantzen programa finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako dirulaguntzen deialdira aurkeztea.» Bizikidetza Lantzen programaren barruan sartzen dela egiten den Bizikidetza Batzordea. Foru Aldundiak dirulaguntza batzuk ematen dituela horretarako, eta Bizikidetza Batzordearen jardueraren memoria bat igortzen dela, eta 11.063,40 euroko dirulaguntza eskatu zela, hau da, ekimenaren %80a.
- 213/2025 Dekretua, «Kultur elkarteei zuzendutako dirulaguntzen 2025ko deialdia.» Aurtengo deialdiak 25.000,00 euro izango zituela.
- 214/2025 Dekretua, «Maiatzeko AESak (G.O.)» Guztira 550,00 euro.
- 222/2025 Dekretua, «Hondartzan nibelatzeko lanak.» Esleipenduna Excavaciones Ipar Lur, SLU, izan zela, eta gastua, 4.477,00 eurokoa.
- 227/2025 Dekretua, «Onartzea ondare-erantzukizuneko erreklamazioa. MJ.V.P.» Espediente hori 2021etik datorrela, Lersundi kalean emakume batek izandako erori batengatik. Hainbat tirabiren ondoren, azkenean aurkeztu zuela jasandako kalteen balorazioa, eta 27.489,27 euroko kalte ordaina onartu zitzaiola. Udalak 300 euro ordainduko zituen, eta beste guztia, aseguruaren kontura joan zela.
- 231/2025 Dekretua, «Hondartzako aldageletako ur beroko instalazioaren mantenua eta legionelaren aurkako tratamendua kontratatzea.» Ingurumenetik igorritako txostenari jarraituz, TARTE Koop.Elk. esleitu zitzaion kontratua 1.119,62 eurotan, baina, gero konturatu zirela kontratu hori ur beroaren mantentze lanetarako bakarri zela, eta 248/2025 Dekretuaren bidez akatsa zuzendu zela, eta 249/2025 Dekretuaren bidez, Legionellaren aurkako tratamendua FERVIL enpresari esleitu zitzaion, 2.995,96 eurotan.
- 233/2025 Dekretua, «Ezestea hiru hilabeterako erroldatzeko eskaera.» Santiaran baserrian 20 perutar hiru hilabeterako erroldatzeko eskaera aurkeztu zela, eta, Legeari jarraituz urtean denbora luzeagoan bizi den udalerrian erroldatu behar denez, hiru hilabeterako erroldatzeko eskaerak ez dira onargarriak.
- 242/2025 Dekretua, «Debako jaietako zezen plazaren auto babes-planaren berrikuspena.» Berrikuspen hau urtero eginbehar den gauza dela, eta urtero bezala QUIRON PREVENCIÓN, SLU egingo zuela, 1.492,02 eurotan.
- 257/2025 Dekretua, «Maiatzeko AESak», guztira, 2.619,20 euro.

Isidro Ariatik galdetu zuen ea zinegotzi guztiek jasotzen ote duten azaldu ziren xehetasun guztiak, hala nola, partidak eta diru zenbatekoak. Alkateak erantzun zion ezetz, deialdiarekin batera dekretuen zerrenda jasotzen dutela eta, bi aukera dituztela, Plenoan bertan galdetu, edo Idazkaritzatik pasatzea eta bertan galdetu.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

3. Onartzea, hala badagokio, 2026ko abuztuaren 17a, tokiko jai eguna deklaratzeko.

Alkateak azaldu zuen 2026. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duen apirilaren 8ko 82/2025 Dekretua, eta behin argitaratuta udalei dagokiela tokiko jai eguna proposatzea. 2026an San Roke eguna igandea denez, hurrengo eguna, abuztuaren 17a, Debako tokiko jai eguna



deklaratzea proposatu zela, eta Antolakuntza Batzordeak, 2025eko maiatzaren 19an egindako ohiko bileran, horren aldeko irizpena eman zuela.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

4. Onartzea, hala badagokio, Musika Eskolako 2025-2026 ikasturterako matrikulazio kuotak.

Alkateak azaldu zuen dokumentazioarekin batera Musika Eskolako Patronatuaren azken bileraren akta igorri zela, eta bertan azaltzen zela 2025-2026 ikasturterako kuoten proposamena. 2024-2025 ikasturtean matrikulazio kuotak ez zirela eguneratu, eta 2025-2026 ikasturterako proposamena zela udal zergak eta tasak igo diren batez besteko ehuneko bera aplikatzea Musika Eskolako kuotak eguneratzeko, hau da % 5a.

Halaber, azaldu zuen, Osoko Bilkurari proposatuko zaiela Udalak antolatzen dituen beste ikastaro eta jardueratan (Gozatuz, Uda Kirola, ...) egiten bezala, Musika Eskolako kuotetan ere % 80ko hobaria aplikatzea egoera zaurgarrian (gizarte laguntzak jasotzen dutenak) dauden familiei, eta % 20ko hobaria familia ugarietara.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

5. Onartzea, hala badagokio, Debako Udalaren eta Gipuzkoako Farmazialarien elkargo ofizialaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena.

Alkateak azaldu zuen 2024ko azaroan hitzarmen bat sinatu zela Gipuzkoako Farmazialarien elkargo ofizialarekin eguneko zentroko erabiltzaileei, botikak modu egokian hartzeko laguntza emateko.

Orain, Eudel eta Gipuzkoako Farmazialarien elkargoak esparru-hitzarmen bat sinatu zutela, eta 2024ko hitzarmenean jasotakoaz gain, hitzarmena zabaltzea, egoera zaurgarrian egon daitezkeen edo arazo sozio-sanitario izan ditzaketen pertsonak farmazialarien bitartez aurrez detektatzeko programa martxan jartzeko.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

6. Onartzea, hala badagokio, EH Bilduk aurkeztutako "Bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatzeko prozedurari hasiera ematea" mozioa.

Alkateak Deba gune tentsionatua izendatzeko buruz EH Bilduk aurkeztutako mozioaren berri eman zuen. Azaldu zuen maiatzean bertan jakin dela Debak eremu tentsionatua izendatzeko ezarrita dauden hiru baldintzetatik bat betetzen duela, baina, ez dela aztertu izendapen horrek izan ditzakeen ondorioak, ezta horretako jarraitu beharreko pausoei inguruan ere. Aurreko astean Lurraldetasun Batzordearen bilera egon zela, eta bertan EH Bilduko ordezkariak ez zutela ezer aipatu, eta orain mozioa sartu zutela.

Gune tentsionatua izendatzea berarekin dakarrela hiru urteko epean tentsionatu egoera horretatik irteteko programa bat onartzeko beharra. Gileni azaldu ziola gaia polikiago aztertu behar zela eta mozioa erretiratzeko eskatu ziola, ekainean lan talde batean gaia lantzeko denbora izateko, eta lanketa horren arabera, nahi izanez gero mozioa aurrerago aurkeztu zezaten. Horrela, mozioa ez zela erretiratuko ikusita, mozioari ezezkoa ematea proposatu zuen, eta mozioari erantzuteko prestatutako testua irakurri zuen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, adostasuna azaldu zuen alkateak aurkeztutako posturarekin.

3. Ostolaza Udal Liburutegia.

Alkateak liburutegian inguruan egon diren eskaeren berri eman zituen. Halaber azaldu zuen eskaeren atzean dagoen taldea zarata asko sortzen ari zela, eta toki askotara (telebista, Arartekoa, etab) joan zirela. Inor ez diola esan Udalari eskaera horiei kasu egin behar direnik, baina gaia deserosoa dela eta gaia lantzeko hainbat bilera egin ondoren erabaki zela ekainaren 16tik aurrera baimentzea adin txikiko umeak sartzea, eta irailetik aurrera gaur egun KZ Gunea dagoen espazioa haurren liburutegia jarriko dela. Ume txikiak beti heldu batekin egon beharko direla eurentzat sortuko den espazioan, eta heldu horrek une oro egon beharko dela umeen espazio horretan, baita egunkaria irakurri nahiko balu ere.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

4. BIEL Kontsumitzaileen Bizitza elkarteak aurkeztutako Covid 19-txertoa geldiarazteko luzamendua eskatzeko mozioaren azterketa.

Alkateak azaldu zuen talde horrek lehen ere aurkeztu zuela beste mozio bat Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernuari, baitata beste erakundeei ere, Covid 19 aurkako txertoaren inguruko azterketa independente bat eskatzeko.

Oraingo mozioa zela Euskal Osasun Administrazioari txertaketa geldiaraztea eskatzeko, eta txerto horrek sortutako ondorio kaltegarriari buruzko informazioa argitaratzea eta azterketa epidemiologiko sakon bat egitea, behin betiko ondorioak ateratzeko.

Horiek horrela, lehen egin zen bezala proposatu zuen mozioa Osoko Bilkurara ez bidaltzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, erabaki zuen Osoko Bilkurara ez bidaltzea BIEL Kontsumitzaileen Bizitza elkarteak aurkeztutako Covid 19-txertoa geldiaraztea eskatzeko mozioa.

5. Eskari eta galderak.

Ez ziren egon

Horrenbestez, beste aztergaiarik ez zegoenez, 17:45ean amaitu zen Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

Joseluis Salaberri Iñarra
Idazkaria



Alazne Txurruka Allika
Alkatea

